

### LEGBILTZARREKO MAHAIARI

Marian Beitialarrangoitia Lizarralde, EH BILDU taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin, “IRPH indizea erabiltzeari uztearen inguruan”:

ZIOA:

Iaz, 2013ko ekainaren 27ko osoko bilkuran, Legebiltzarrak onartu zuen IRPH indizea etxebizitza maileguetatik desagertu eta gardentasun maila onargarriak dituzten ordezko indizeak erabiltzearen aldeko proposamena. IRPHaren kalkuluaren gainean zalantza larriak daude, eta ohikoagoa den Euriborra baino askoz balio handiagotan dago. Ondorioz, milaka herritarrek hilean ordaintzen dutena asko igotzen da, eta askok ezin diote eutsi, etxebizitza galtzerainoko ondorio larriekin.

Orduan, beste eskari batzuen artean, finantza erakundeei, eta bereziki Kutxabanki, eskari zuzena egin zitzaien Legebiltzarretik: Spainiako Gobernuak erreferentzia indize horiek desagertzeko bidean ezarri beharreko aldi baterako erregimenari itxaron gabe, beraien maileguetan indize ordezkagarria dutenek, berehala egiteko aldaketa; Kutxabanken kasuan IRPHaren ordez bere maileguen kontratuetañ adosturiko Euribor+%1 indizea aplikatuz.

Eskaria egin zen, baina Kutxabankek eta beste zenbait finantza erakundek IRPH indizea aplikatzen jarraitzen dute.

Orain berriz, orain dela egun batzuk, Donostiako Merkataritza arloko epaitegiak Kutxabank zigortu du, IRPHak kaltetutako bi herritarren salaketa dela eta, neurri gaintiko klausulatzat joz aipatutako indizea; eta ondorioz mailegu horretan IRPHa erabat baliogabetuz. Donostiako Merkataritza arloko 1. Epaitegiaren 156/14 epaiaren arabera, Kutxabankek bueltatu egin behar die neurri gainti kobratu dizkien hipotekaren interesak, IRPHaren arabera ordainduriko kuota guztiak Euribor+%1 ordezkoaren arabera berriz kalkulatuz.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo Legez Besteko proposamena aurkezten dugu:

## LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA:

1. Legebiltzarrak Kutxabank-i eskatzen dio Donostiako Merkataritza arloko
  1. Epaitegiaren 156/14 epaia onartzea eta helegiterik ez jartzeko, nabarmena baita IRPH indizearen abusuzko izaera eta ez baitu zentzurik herritarrok beraien eskubideen defentsan epaitegietara jotzen derrigortzeak.
  2. Legebiltzarrak Kutxabank-i eskatzen dio aipaturiko epaia lehenbailehen aplikatzeko eta IRPHaren edozein aldaera duten bezero guztiei zabaltzeko, guzti-guztiei indize horren ordez Euriborra berehala aplikatz, gehienez %1-ekoa izango den differentzial batekin. Ordezkatzea beti ere atzera eraginez edo retroaktibitatez izango da, IRPH indizearen arabera ordainduriko kuota guztiak berriz kalkulatz eta gehiegikeriaz kobraturiko dirua kaltetuei itzuliaz.
  3. Legebiltzarrak gainerako finantza erakundeei eskatzen die haiek ere IRPHaren edozein aldaera duen etxebitzta-mailegu guztietan IRPHa bertan behera utzi eta Euribor-arekin berehala ordezkatzeko, gehienez %1-ekoa den differentzial batekin. Ordezkatze hau atzera eraginez edo retroaktibitatez izango da, IRPH indizearen arabera ordainduriko kuota guztiak berriz kalkulatz eta gehiegikeriaz kobraturiko dirua kaltetuei itzuliaz.
  4. Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio oraindik indarrean dagoen IRPH Entidades delako indizea bertan behera uzteko, nabarmenak baitira bere kalkuluan dauden irregulartasunak, berriki abusuzkotzat joa izan den IRPH Cajas indizearen kasuan bezalaxe. IRPHaren aldaera guztien ordecko gisa Euribor-a ezartzeko eskatzen dio, gehienez %1-ekoa izango den differentzial batekin.
  5. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio, IRPH indizea erabiltzen jarraitzen duten finantza erakundeekin harreman ekonomikoak etetea.

Gasteizen, 2014ko maiatzaren 8an  
Marian Beitialarrangoitia Lizarralde



**EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramale-ordea**



EUSKO LEGEGBTZARRA  
PARLAMENTO VASCO  
ITZULPEN ZERBITZUA  
SERVICIO DE TRADUCCIONES

19114

### **A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO**

**Marian Beitialarrangoitia Lizarralde, parlamentaria del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY, para su debate en pleno, sobre el desistimiento en la utilización del índice IRPH.**

#### **JUSTIFICACIÓN**


El pasado año, en pleno celebrado el 27 de junio de 2013, el Parlamento Vasco aprobó una proposición favorable a la desaparición del índice IRPH de los préstamos hipotecarios y al uso de índices alternativos con un nivel de transparencia más aceptable. Existen serias dudas acerca del cálculo del IRPH, permaneciendo en valores más altos que el más habitual Euribor. En consecuencia, se incrementa notablemente lo que miles de ciudadanos deben pagar al mes, no pudiendo muchos de ellos resistir, lo que acarrea graves consecuencias, que pueden llegar a la pérdida de la vivienda.

En este sentido, se realizó, entre otras, una petición directa desde el Parlamento a las entidades financieras y, particularmente, a Kutxabank: la inmediata sustitución de estos índices de referencia, sin esperar al establecimiento por el Gobierno español de un régimen transitorio tendente a su desaparición, con índices alternativos en sus préstamos hipotecarios, aplicando en el caso de Kutxabank un índice del Euribor + 1% pactado en sus contratos crediticios, en lugar del IRPH:

Se realizó la petición, pero tanto Kutxabank como otras entidades financieras siguen aplicando el índice IRPH.

Ahora, hace unos pocos días, un juzgado de lo mercantil de San Sebastián ha sancionado a Kutxabank, como consecuencia de una denuncia interpuesta por dos ciudadanos afectados por el IRPH, considerando dichas cláusulas como abusivas, por lo que las anula totalmente en este préstamo. A tenor de la sentencia 156/14 dictada por el Juzgado de lo Mercantil número 1 de San Sebastián, Kutxabank debe devolverles los intereses hipotecarios abusivos que les han sido cobrados, recalculando todas las cuotas aplicando el índice sustitutorio Euribor + 1%.

Por todo ello, presentamos la siguiente proposición no de ley:



## PROPOSICIÓN NO DE LEY

1. El Parlamento Vasco insta a Kutxabank a admitir la sentencia 156/14 dictada por el Juzgado de lo Mercantil número 1 de San Sebastián y a no interponer recurso alguno, dado que es evidente el carácter abusivo del índice IRPH y no tiene sentido obligar a los ciudadanos a recurrir a los tribunales en defensa de sus derechos.
2. El Parlamento Vasco insta a Kutxabank a que aplique inmediatamente la citada sentencia y a que la haga extensible a todos los clientes que tengan cualquier variedad del IRPH, aplicando inmediatamente a todos ellos el Euribor, en lugar de dicho índice, con un diferencial máximo del 1%. La sustitución se aplicará, en todo caso, con efectos retroactivos, recalculando todas las cuotas abonadas según el índice IRPH y devolviendo a los afectados el dinero cobrado abusivamente.
3. El Parlamento Vasco insta al resto de entidades financieras, igualmente, a eliminar inmediatamente el IRPH en todos los préstamos hipotecarios en los que se incluya cualquier variedad del IRPH y a sustituirlo inmediatamente por el Euribor, con un diferencial máximo del 1%. Esta sustitución se aplicará con efectos retroactivos, recalculando todas las cuotas abonadas según el índice IRPH y devolviendo a los afectados el dinero cobrado abusivamente.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno español a la eliminación del índice denominado IRPH Entidades que aún sigue vigente, al ser evidentes las irregularidades existentes en un cálculo, tal y como sucede en el caso del índice IRPH Cajas que ha sido recientemente declarado como abusivo. Le insta a establecer el Euribor como sustitutivo de todas las variedades del IRPH, con un diferencial máximo del 1%.
5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a suspender sus relaciones económicas con aquellas entidades financieras que siguen empleando el índice IRPH.

En Vitoria, a 8 de mayo de 2014

Marian Beitialarrangoitia Lizarralde

Parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu